

B

BARREN

TOKIKOM



Hip hopa, kaletik antzokira

Maria Escobedo, Urban Show jaialdiaren antolatzailea

emugi!

elgoibarko
mugikortasun
iraunkorra



EMUGI. Ibilgailuak zentzuz erabiltzeko

AUTO PARTEKATUA (Car-sharing):

Egin zaitetz bazkide eta erreserba ezazu, zure beharren arabera, A klaseko Mercedes bat (5 plaza), EAEn noizean behin egiten dituzun joan-etorrietarako. Ez duzu erregairik, asegururik edo mantentze gasturik ordaindu beharko. Erreserbatutako minutuak bakarrik ordainduko dituzu.



PREZIO: 0,20 € 5 minutuko (ordubete 2,40 €)
BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 50 €

BIZIKLETA PARTEKATUAK (Bike-sharing):



Erabil itzazu bizikleta elektrikoak herri barruko joan-etorrietarako. Bizikleten motor elektrikoari esker, Mintxetaraino edo Sigmaraino erraz-erraz iritsi ahal izango zara, eta ez duzu aparkatzen denborarik galduko. Eta gainera, gure herriko kaleetan motordun ibilgailu gutxiago ibiliko da.

PREZIOA: 0,25 € 15 minutuko
(ordubete euro 1)
BAZKIDEEN URTEKO KUOTA: 25 €

Informazio gehiago www.emugi.net webgunean edo herritarrentzako arreta bulegoan



Iñigo
Lazkano

Don Angel, bu-
ruan zihar darabil-
ten susmo bat
kontakuko dizut
gaur. Aspalditik
naguan pittin bat
moskeatuta, baiña
azken hilabete honetako
pare bat gertaera eta ge-
ro, konfirmatu det: Gizartia
gaixorik dakagu! Kirolitisak jota
gaude! Gero eta gehixagora dixe gaiñe-
ra, eta kronikua bihurtuko dan susmua dakat.



Anjel
Bazterretxea

Latiñezko hiru hitzekin hasiko naiz: Fortius,
citus, altius. Hitz dotore hauek latinez idatzita
daude eta hauxe esan nahi dute: indartsuago,
azkarrago, altuago. Honelako zerbait esaten zu-
ten aspaldiko erromatarrek. Ez omen dezu uler-
tzen oiñezko saltakaldi eta beste kiroletan jende-
ak daukan ilusioa, egunetik egunera kirol-markak
gainditzeko. Horretan ez gera asko aldatu sasoi
bateko erromatarrekin. Haiek ere hori nahi zuten,
egunetik egunera marka berriak egin, aurrekoak gaindi-
tuz. Ez dakit erromatarrek diruagatik egiten zuten ala ez. Eta ez da-
kit gaurko kirolariek zergatik nahi dituzten euren markak hobetu. Bai-
na, bizitzako beste arloetan ere horrelako zerbait egiten degu, eta
beti nahi izaten degu gure bizitza hobetzea: eguneroko lana dela,
etxeko gorabeherak dirala...

Mendaroko Tolosa batek holaxe definitu zidan Kirolitisa: Norbe-
rak, bere kasara begittanduta, hau da, iñork agindu gabe, gorputza limi-
te fisikora eramaten gozaten daban pertsoniak sufritzen daban gaixota-
suna. Definizio nahiko zuzena dala iruditzen jata, bestela ez det esplika-
tzen zelan 20.000 lagun Behobiatik Donostiara saltaka juan leikezen do-
meka goiz baten, edota, oraiñ bi aste bezela, Elgoibarko plazatik Karaka-
teko puntara, bihotza ahotik erten biharrian ixotzeko, zelan juntau ziran ixa
ehun lagun. Eta danak gustura, gaiñera!

“Gizartia gaixorik daukagu! Kirolitisak jota gaude, eta kronikua bihurtuko dan susmua dakat”

Mendaroko filosofo eta pentsalari batek esan zidan bezela: “Hori ere,
taillarreko jefiak agindutakua izango balitz, beran amakin akordauko zi-
ttuazeti!” Zerk bultzatzen gaitu holako *azañetara*? Horrenbeste asper-
tzen al gera gure eguneroko bizitzan, Don Angel?

Zorokerixa deportibo hauek gero eta haundixaguak egitten dira gai-
ñera, eta zenbat eta astokerixa haundixagua, orduan eta arrakasta gehi-
xago izaten debe. Adibidez, seguru nago hurrengo Mendaroko ferixa
egunian, idi probetarako dauden harririk mobitzeko lau edo bost men-
daroar indartsu juntatuko nittuzkeela apostu xebrerren bat egitteko. Al-
de batera lagata, egun horretan, 14:00etatik aurrera indar eta sasoi su-
perabita egoten dala. Zer uste dezu zuk?

“Bizitzako beste arloetan ere beti nahi izaten dugu hobetzea”

Ez da bizitzeko jarrera txarra: aurrera beti. Zerbait falta baldin ba-
degu, jo ta ke, lortu arte. Ez da jarrera txarra; ezin hobea dela esan-
go nuke. Eta zu hain txundittuta utzi zaituen kirolari hauen markak
hobetzeko amorru hori, nik bizitzarako beste arloetara eramango nu-
ke. Zer iruditzen zaizu gure denbora hauetan, hainbat ahalegin egin
behar diren une hauetan, gure bizimodua hobetu behar dan une ho-
netan, horrelako kirolari asko egotea bizitzako arlo garrantzitsuene-
tan? Ez al dira atleta buru-argi, esku-zabal, bihotz-zabal eta beste
hainbat giza-baloredun, mendi batera edo Kross batera joateko bai-
no, gure herriaren arazo handienak konpontzeko egokiak? Ze trofeo
emango zenieke gure herriko Kros Nagusiarri, aspaldian bukatu ezin
degun Bake-kros honi amaiera emango lieketenei? Nik, eta latiñez
hasi dedan idatzi hau latiñez amaituz, nota hauxe emango nieke:
Meritissimus suma cum laude, hau da, bikain, bikain, bikain.

ESKERTZA

JULIANA CAMARERO VICARIO



2011ko azaroaren 25ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ALCORTA, 100 URTE



Alcorta lantegian 1912an ateratako argazkia.

Atzo 100 urte, 1911ko abenduaren 1ean, Esteban Unzuetak eta Teodoro Alcortak eskopetetako kanoiak egiteko *E. Unzueta y Compañía* enpresa sortu zuten. San Frantzisko kalean kokatu zuten lantegia orduan eta 70. hamarkadara arte, bertan landu ziren forjako eta esku-erraminten lanak. 100 urte erraz esaten badira ere, makina bat gorabehera eta aldaketa izan ditu 1911 hartako *E. Unzueta y Compañía* zenak. Hona hemen, mende batez, eskuz eta erramintaz, forjatutako bidea.

Ainhoa Mendibi Artetxe

Eskopeten kanoigintza eta zerikusia duten bestelako lanak. Horiek ziren *E. Unzueta y Compañía* sortzerakoan fundatzaile biek sinatutako eskrituran jasotako lanak. Horretarako, lau mila pezetako kapitalarekin hasi zen enpresa, San Frantzisko kalean kokatutako lokalean. Alabaina, orduko Alcorta ezagutu zutenetako batek baino gehiagok gogoratuko ditu tailerok Iturri izenez, inguru haietan zegoen iturri bati eskerak.

Izenak ez zuen izana aldatu

Denboran aurrera egin ahala, enpresa

100 urte betetzen dituen bigarren enpresa elgoibartarra da Alcorta

haztearekin batera, armen inguruokoak ez ezik, labanagintzan eta aparatu elektrikoaren fabrikazioan ere murgildu zen enpresa 1920. urterako. Ordurako baina, sorrerako izenak aldaketak izan zituen eta *Alcorta y Cia* izate-

ra pasa zen Unzuetar eta Alcortatarren negozioa. Orduan ekin zioten gaur arte iraun duen forjaren jardunari.

Forjak landu zuen bide berria

70. hamarkada hasieran, gaur egun ezagutzen dugun lantegiaren eraikitze-lanak hasi eta hamarkada bukaerarako, forjari lotutako lanak bertara eraman zituzten. Aski ezaguna zaigu elgoibartarroi Alcortako lantegiaren inguruan entzun ohi dugun zarata. Lantegia martxan denaren seinale izan da urteetan askorentzat eta hori bera izan zen lantegia lekuz aldatzearen arra-

zoia. Zaratak eta leku faltak eraman zuten Alcorta Sanllobente auzoko eraikin berrira. Horregatik, hasieran forjaren lanak baino ez ziren horra eraman; 90. hamarkadan egin baitziren lantegi berriaren azken lanak, erraminten fabrikazioa ere bertan kokatze-ko.

1997 bidegurutzean

92ko krisia ez zen gozoa izan inorentzat, eta Alcortak ere, gogotik sufritu zituen bere ondorioak. Aliatu bat topatu beharrak, Alemaniara begira jarri zuten enpresa eta horrela egin zuten topo Brockhaus forja alemaniarrekin. Aukera ezin hobea zen hura forjaren munduan zabaldu eta lekua hartzen joateko, eta aukera galdu ezinda, Alcorta bi zatitan banatu zen. Alcorta Brockhaus osatu zen alde batetik, internazionala izango zena eta forjan autoetako piezak egiten jarraituko zuena alemaniarrei eskutik emanda, eta beste aldetik Alyco Tools, esku-erramintak egiten jarraituko zuena. Ostean etorritako urteak bakoitzak bere aldetik egin baditu ere, bakaretik jaiotakoak dira bi enpresak eta bide desberdinean, baina batera beteko dituzte 100 urteak.

Alcorta forging group

97an hasi eta 2005 bitartekoak urte on moduan gogoratzen ditu Lorenzo Mendieta egungo Alcortako gerenteak. Munduko forjarik onenetariko bat izatera iritsi zen eta Alemaniako aliatuak bide onean jarri zuen. Alabaina, negozio kontuak zer diren, 2005. urterako, Mahle enpresa alemaniarrek Brock-

haus erosi zuen eta horrekin batera, Alcortaren %51 ere bere eskuetan erori zen. Pare bat urte pasa behar izan ziren Mahlek Alcortan saltzea erabaki zuen arte eta orduan, berriz bertakoek berreskuratu zuten enpresa. Familia fundatzaileek erosi zuten zati bat, baina baita orduko hamabost langilek ere. Eta horrek, aldaketa ekarri zuen Alcortara.

Langileen Alcorta

Mahlek saldutako Alcortaren akzioak erosi zituzten langile horien helburua, gaitontzeko langileek ere akzioak erosteko aukera izatea dela azaldu du Mendieta gerenteak. Eta ez hori bakarrik. Akzio horien jabetza rotatiboa izatea ere bada euren nahia. Soilik bertan lanean dihardutenak izan daitezten akziodun, norbait erretiratzean edo enpresa lagatzean, bere akzioak langileei salduz. Horrela, langileek are eurenagoa sentitzen baitute enpresa eta ez dago ezer hoberik hori baino, negozioak aurerra egiteko.

Ikusi besterik ez dago azken urteetako krisi egoeran nola egin duen aurrera enpresak. 2009. urtean oso gogor jo zuen krisiak eta erdira jaitsi ziren salmentak. Egoera horretatik irteteko, langileek izandako inplikazioa eta partehartzea ezinbestekotzat jo ditu Mendieta. Horri eskerrak igo ziren salmentak 2010ean, eta 2011an salmenten errekorra hautsiko dute.

Lan-modu horri eutsi nahi diote aurrerantzean ere Alcortakoek. Izan ere, aurrera begirako erronkei buruz galdetuz, internazionalizazioari eta gaur egungo maila ekono-

IRUDI BAT, MILA HITZ BAINO GEHIAGO

100 urtean, hamaika irudi. Langileak, lantegia, piezak, ospakizunak, lankide-afariak... Irudi askok osatzen dute Alcortaren istoria eta horiek batu nahi ditu enpresak.

Aspaldiko argazkiak dituenak, info@alcortagroup.com helbidera bidali ditzake, lantegira eraman, edo Udaleko Kultura sailean entregatu.

miko onari eusteaz gain, bertako langileek proiektua euren sentitzea dute kokatuta asmoen artean.

Badago zer ospatu

Egunero ez dira 100 urte betetzen. Elgoibarren beste enpresa batek bakarrik lortu orain arte 100 urte betetzea, Fundiciones San Pedrok. Beraz, horretan geratu gabe, baina hasierako *E. Unzueta y Compañía* hartatik sortutako bi enpresek erreparatu diote urteurrenari. Atzo esaterako, ordu-erdiz egitekoak laga eta urteurrena ospatu zuten langile denek batera, mokadutxo batekin.

Horrez gainera baina, 100 urte hauek bazuten dituen erakusketa bat egitea eta liburu bat argitaratzea ere badira Alcortaren asmoak. Orain artekoa jasota geratu dadin, aurrera bidean ere ez galtzeko.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALA



MENDIARRO UDALA



ELGOIBARKO UDALA



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Kaixo, Sebas!

Pentsamenduak eta sentimenduak lapurren eskuetatik at daudelako, itxi begiak eta bidaltzen dizugun "kometaz" gozatu. Zuk nahi dituzun koloreak irudikatzeke ez duzu betaurrekorik behar. 27an, birrikak airez bete eta gurekin batera abestu ezazu zuretzat aukeratu dugun abesti eder hau. Amnistiaren dema (Anje Duhalde):

Amnistiaren demak, bakea du izar eta askatasuna oinarritzko indar herri dena abian, hego eta ipar, gaur borroka dugu ta garaipena bihar.

"Amnistiaren dema, garaipen eguna. Lortzen ari garena, lortuko duguna"

Zaudete ziur haiek ez dute etsiko, ez dituguk ere horrela utziko.

Denak noizbait etxean zutik eta tinko, egon ziur lortuko duguna betiko.

Amnistiaren dema....

Zorionak eta laster arte!!!

Larra, Patxi eta Edurne ☺

Zutabeak

Industria eta barne zein atzerri merkataritza betidanik izan dira herri aurreratuen zutabeak. Kudeaketa egokian eta pertsonen gaitasunean oinarriturik, Elgoibarren industria lehiakorra daukagu.

Enpresa eta erakundeen elkarlanaren bitartez, bata bestearen gertutasuna eta babesa behar dute. Pertsona eta industri sare indartsuak, jakintsuak, lehiakorak, sortzaileak eta berritzaileak behar ditugu, haiek etorkizunaren bermatzaileak dira eta.

Foru Aldundiko Berrikuntza Saileko aurrekontua %32 gutxitzeak, Foru Aldundian Industria Sail zehatz bat ez izateak eta bideragarri diren inbertsio estrategikoen murrizketak ez dira lagungarriak izango Elgoibarrek gaur egun dituen gaitasunak indartzeko eta beharrak asetzeko.

Hazkundera eta egonkortasuna bermatzea derrigorrezkoa da, eragileak babestuz. Nola? Enpresen gizareratzeta eta sormena, lehiakortasuna, berrikuntza, jakintza, inplikazioa eta internalizazioa sustatuz, sektore publikoan nahiz pribatuan. Elgoibarko Barne Produkto Gordinaren %50a industriatik dator. Elgoibarko jarduerak sortzen duen enpleguaren %54a industria sekto-

rean kokatzen da. Mantendu beharra daukagu. Gure zutabe nagusia dela esango nuke.

2012ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontua abenduaren 23an bozkatuko dute Batzar Nagusietan. Lagungarri izan gaitezen aipatutako gabeziak bideratzeko.

Alfredo Etxeberria ☺

Egin dezagun bidea

Euskal preso politiko eta iheslariaren eskubideen alde lan egingo duen ekimena da *Egin dezagun bidea*. Milaka lagunek bat egin dute ekimen honekin, eta horren isla dira Euskal Herri osoan barrena sortzen ari diren Herri Bilgune parte hartzaileak, askotariko indarrak bat eginda, euskal presoaren eskubideen alde lan egingo duen herri mobilizazioa.

Datozen egunetan erronka sahiestezin bat du herri honek, eta horren jabe egin nahi dugu jendarte zabala; mota guztietako eragileak, alderdi politikoak eta norbanakoak. Izan ere, Elgoibarren bidea egiten hastera goazelako, har dezagun denok gure gain, lehenik eta behin, kondena beteta duten eta gaixorik diren presoak etxeratzeko erronka. Horrekin batera, euskal presoak Euskal Herrian batzea, eragile aktiboak izan daitezzen, gatazkaren konponbidean lortu behar dugu. Hauek guztiak Amnistia lortzeko bidean, non gatazka politikoaren konpontzeak, honek eragindako kalte eta ondorioak gainditzea ekarri behar duen. Horretarako, datorren abenduaren 17an, 13:00etan, Plaza Handian gure herrian egingo den *Egin dezagun bidea* plataformaren aurkezpena etortzeko gonbitea egiten dizuegu, eta baita, urtarilean hasiko diren herri bilguneetan parte hartzekoa ere.

Egin dezagun bidea, plataforma ☺

OHARRA

Datorren astean, astelehenean, eguaztenez eta barrixakuan zabalduko dugu **BARREN**eko erredakzioa, goizez. Bestalde, hurrengo alea Gabonetako ale berezia izango da, eta **abenduaren 23an** banatuko dugu. Ale horretan argitaratzeko informazioa **abenduaren 19rako** ekarri behar duzue gure erredakziora. Eskerrik asko.



Sigmako frontoian ez dago sarerik: “Sigmako frontoian ez dago sarerik, eta pilotak errepi-dera joaten zaizkigu. Auto asko ibiltzen da errepide nazionalan, eta arrisku handia sortzen da, piloten ondorioz. Ez dakigu zergatik kendu zuten sarea, baina eskertuko genuke berriz jartzea, mesedez. Mila esker”.



Ibaia zikin-zikin dago berriro: “Debegesak antolatuta, Deba ibaia jardun zuten dozena bat lagunek, baina berriz ere ibaia zikin-eriaz beteta dago. Nire etxeak ibai aldera ematen du, eta ikusi izan dut jendea zabor poltsak ibaira botatzen. Lotsagarria iruditzen zait. Ibaia garbi mantentzea denon lana da”.



Mintxetako nesken aldagelako entxufea konpondu dute: “Eskerrik asko! Aurreko astean kexa jarri ondoren, astear-tean jada, entxufea konponduta zegoen. Piskanaka bada ere, seguru nago Mintxetako nesken aldagelaren egoerak hobera egingo du. Mila esker Patronatuko arduradunei, gure kexak kontuan hartzeagatik”.

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barrere@elgoibarkoizarra.com 943 744 112



I. URTEURRENA

FRANCISCO JAVIER JUARISTI SANTOS

2010eko abenduaren 3an hil zen, 57 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, abenduak 3, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





902 110 436
www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Mundu bat nahi beste autera

Goi Eskola Politeknikoa Arrasate

ABENDUAK 17 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

Oñati **ABENDUAK 15** osteguna, 18:00

Irun **ABENDUAK 17** larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea Donostia

ABENDUAK 17 larunbata, 10:30





Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria jaso dute Elgoibar Ikastolak eta Mendaro Ospitaleak

Bikain ziurtagiria jaso duten elgoibartarren artean, Ikastola da urrezkoa lortu duen bakarra

Eusko Jaurlaritzak Bikain Euskararen Kalitate ziurtagiria eman die Mendaro Ospitaleari eta Elgoibar Ikastolari. Eguaztenean Bilbaoko Guggenheim-en egindako ekitaldian jaso zuten bi erakundeek bakoitzari dago-kion saria.

Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa baloratzen ditu sariak, eta hiru maila desberdinetako ziurtagiriak daude: brontzea, zilarra eta urrea. Zilarra jaso du Mendaro Ospitaleak eta urrea Elgoibar Ikastolak. Hortaz, Mendaron eta Elgoibarren aurrez ziurtagiri berdina jasotakoan artean, urrea lortu duen estreinako erakundea bilakatu da Ikastola. (Aurrez 2008an Danobatek eta IMHK jaso zuten zilarrezko ziurtagiria).



Bi urteko lana

Orain bi urte idatzi zuen Ikastolak, ziurtagiriak saritutako hizkuntza proiektua. Azken batean, proiektu horren bitartez arautu baitute Ikastolan hizkuntza bakoitzak izan beharreko presentzia eta erabilera, eta hizkuntza proiektuak finkatu ditu ziurtagiriaren arrazoi diren oinarriak.

Behin proiektua eskuartean izanda eta Euskaliten izena emanda, ebaluatzaileen txanda iritsi zen. Euskalit erakundea da ziurtagiriaren arduraduna, eta bertako ebaluatzaileek jardun zuten Ikastolan, beharrezko informazioa jasotzen.

Azkenik, ebaluatzaile horiek Ikastolari jarritako puntuazioaren ondorioz jaso du zentroak Urrezko Bikain Saria.

Urteko Euskal Herriko gazta txapelketa aukeratuko dute Urte Zahar ferian



Urtean zehar jokaturako gazta txapelketa desberdinetako irabazleak batuko dira Elgoibarren abenduaren 31n egingo den Urte Zahar ferian, eta bertan erabakiko da Euskal Herriko urteko gaztarik onena zein izan den.

Horri lotuta, maridaje-afaria antolatu dute Belaustegi jatetxean, Idiazabal gazta, ehiza eta Ramon Bilbaoren bodegako ardoa uztartzeko. Guztira bost plater eta bost ardo dastatzeko aukera egongo da. Kultura sailean eta Belaustegin eman daiteke izena.

'Beldur Barik' lehiaketako sariak banatu zituzten barixakuan

Azaroaren 25ean Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izan zela eta, elkarretaratzeko egin zuten Plaza Handian Udaleko ordezkariak eta herritarrek, eta horren ostean, Beldur Barik lehiaketako sariak banatu zituzten Kultur Etxeko Sotoan. Gaztetxoan mailan, Haizea Beristainek, Mikel Agirrebeñak eta Imanol Iturrinok irabazi zuten *Zuk ere baduzu mihia* izeneko lanarekin eta gazteenean berriz, Maialen Astigarraga eta Eire Vilak, *Koska beldurrari* izeneko lanari esker.



Erdigunean bakarrik jarriko dituzte aurten Gabonetako argiak



Joan den urtean baino 11.000 euro guxtiago gastatuko ditu aurten Udalak Gabonetako argietan. Izan ere, herriko alde zaharreko kaleetan baino ez dira piztuko aurten, koloretako argiak. Auzoek ez dute aurten halakorik izango, gastua murriztu beharra tarteko. 26.000 euro gastatuko dira guztira.

Santa Klara auzoan salbuespena egingo dute. Erregeen kabalgata dela eta, Santa Klarako komentutik abiatzen denez, inguru horretan mantendu egin dira argiak, kabalgata janzten laguntzen dutelakoan.

Bilduk aldizkaria eta pintxoak banatu zituen herritarren artean

Bildu Elgoibarrek azken hilabeteetan egindakoa jasotzen duen aldizkaria banatu zuten Bilduko zinegotziek Plaza Handian zapatuan. Pintxoak ere eskaini zizkieten gerturatutakoei, eta euren bulegoa erakutsi zieten herritarrei. Bulegoa martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:00etara herritarrentzako zabalik izango zutela jakinarazi zieten Plazatik igarotakoei.



Kontsumo iraunkorraren feria bigarrenez



Hil bukaerako feriak, bigarren bati ere laga zion lekua joan den zapatuan. Bigarren urtez, Kontsumo Iraunkorren feria egon zen herriko leku desberdinetan kokatuta. Tartean, bigarren eskuko azokak izan zuen arrakasta, eta baita Gemma Agirregomezkortak saldutako Udalaren telazko boltsek eta Emugi proiektuaren aurkezpenak ere.

Ganadua, baserriak emandakoak, kontsumo iraunkorraren aldekoak, Elgoibarko Izarraren txozna... denentzako lekua izan zen kalean (Argazkiak eta bideoa www.elgoibarren.net-en)

Lagunak Pilota Elkartearen zozketak badu irabazlea

Ibai Kortaberriak, 4.486 zenbakidun txartelarekin irabazi ditu lau t'erdiko finalerako bi sarrera eta bi laguntzako afaria.

Barkamen erradikalaren inguruko jardunaldia

Joan den astean ere eman genuen jardunaldi honen berri. Upai-goiti baserrian izango da bihar, zapatua, iluntzeko 18:00etatik 21:00era bitartean.

Alabaina, joan den astean gaizki jarri genuen izena emateko kontaktua. Hona hemen email helbide egokia: iarregiurbizi@hotmail.com. 30 euro balio du jardunaldian parte hartzeak.

Gipuzkoako emakume alargunei buruzko ikerketaren emaitzen aurkezpena

Eibarko Emakume Alargunen Elkartek (Altzoa), Gipuzkoako emakume alargunen inguruko ikerketa bat egin zezan eskatu zuen 2009an eta Foru aldundiak diruz lagundutako ikerketa eginda dago jada.

Lan horren ondorioak azaltzeko, Altzoa Elkartek aurkezpen-hitzaldia antolatu du abenduaren 13rako. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, arratsaldeko 18:00etan.

Tai Chi tailerraren aurkezpen hitzaldia Kemen Belardendan

Karli izeneko Tai Chi, Kung Fu eta Chi Kung irakasleak aurkezpen hitzaldia eskainiko du Kemen Belardendan, hastear den Tai Chi ikastaroaren inguruan. Abenduaren 15ean iluntzeko 19:00etan izango da aurkezpena.

Parte hartu nahi duenak, ize-na eman beharko du Kemen Belardendara joanda edo 943 744 031 zenbakira deituta, hitzaldia entzuteko toki mugatua dago eta.

MARIA ESCOBEDO

DANTZARIA

“Dantzari baten akatsik handiena dena ikasi duela pentsatzea da”

lazko ekitaldiaren arrakasta ikusirik, Maria Escobedo dantzariak bigarren urtez antolatu du Urban Show jaialdia. Hip Hop kultura, eta bereziki, dantza urbanoak gerturatu nahi dizkie herritarrei, eta horretarako, punta puntako dantzariak gonbidatu ditu aurtengo saiora: Bartzelonako D’Block, Alacanteko In Situ, Kantabriako Dance Day eta Gipuzkoako Dance and Smile. Azken talde hau Elgoibarreren sortu zuen Mariak bere ikasleekin. Abenduaren 16an, kaleko dantzak izango dira, beraz, Herriko Antzokian protagonista.

lazko arrakasta ikusita, ez duzu zalantzan jarri bigarrena ere antolatzea, ezta?

lazkoa sekulakoa izan zen. Hamalau sarrera falta izan ziren Herriko Antzokia osorik betetzeko. Horren erdiarekin ere pozik egongo nintzateke. Nik banekien etortzen zirenak gustura irtengo zirela, eskuartean neukan jaialdia oso ona zelako. Eta halaxe izan zen, ikusleak oso pozik irten ziren antzokitik. Denan den, aitortu behar dut lehenengo saioa

egin aurretik bigarrena egiteko asmoa banekuala, eta dagoeneko, hirugarren saioa egiteko ideia ere landuta daukat. Gustatuko litzaidake jaialdi hau urtero antolatzea, beti ere, eskaintzeko aukerak onak baldin bada.

Zer ikusiko dugu aurtengo Urban Show dantzaldian?

Lan handia hartu dut aurtengo ikuskizuna antolatzeko. Antolatzeaz gain, nire ikasleekin

egingo dut dantza jaialdian, eta koreografiak prestatu eta entseguak egiteko ere denbora asko behar da. Urtebete daramat lanean, baina aurtengo ekitaldiaren maila iaizkoarena baino handiagoa da. D’Block eta In Situ taldeak Espainiaako onenatarikoak dira, eta horiek Elgoibarrera etortzea izugarria da.

Zertan oinarritu duzu aurtengo jaialdia?

laz Hip Hop kulturaren berri eman genuen, eta horren barruan sartzen diren alorak aur-



keztu genizkien herritarrei, tartean, dantza urbanoen alorra. Aurten, alor horretan sakontzea da nire nahia, eta dantza urbano mota desberdinak erakutsiko ditugu. Alacanteko In Situ taldeko dantzariak izango dira ekitaldiaren gidariak, eta modu oso alaian eta dibertigarrian azalduko dugu dantza urbanoen mundua. Sorpresaz beteriko ikuskizuna izango da. Ikusleen sentimendu eta emozioak kanporatu nahi ditugu.

Ikuskizuna iragartzeko promozio bideoa grabatu duzue, eta herritarren kolaborazioa eskatu zenuen horretarako. Nola erantzun zuen jendeak?

Oso ondo. Nik deialdia egin nuen, baina ez nekien jendea agertuko zen edo ez. Azkenean eskubaloi taldekoen eta futbol taldekoen bazkaria zegoen egun horretan, eta jende asko agertu zen. Oso giro ona sortu zen guztion artean, eta bideoa oso polita geratu da. Espero dut herritarrek ondo erantzutea, eta abenduaren 16an Herriko Antzokia betetzea. **Nola ikusten duzu hip hop mugimendua Egoibarren?**

Gero eta gehiago gara hip hop kulturaren inguruan mugitzen garenak, baina ni eskolak ematen hasi nintzen arte, hemen ez zegoen ezer ere. Zazpi ikasleekin hasi nintzen klaseak ematen, eta orain askoz gehiago gara. Eibarren ere ematen ditut eskolak, eta eskualdeko jende asko etortzen da klaseetara. Ni dantzan hasi nintzenean Donostiara, Bilbora edota Kantabria aldera joaten nintzen klase-

ak hartzera, baina oraingo gazteek herrian bertan daukate hip hop dantzatzeko hasteko aukera.

“Dantza urbano desberdinak erakutsiko ditugu Urban Show jaialdiaren bigarren edizioan”

Eskola horietatik sortu zenuten Dance and Smile taldea, ezta?

Bai. Klaseak ematen hasi eta urtebetera taldetxo polit bat geneukala ikusi nuen, eta taldea egin genuen. Hainbat lehiaketatan hartu dugu parte, eta hemendik aurrera beste hainbat herritan ere egingo dugu dantza. Elgoibarko dantzariak gain, eskualde osoko jendea dago taldean. Denaren, Urban Show ikuskizunean ez dute taldeko kide guztiek parte hartuko. Urban Show ikuskizuna ez da ikasturte amaierako jaialdi bat. Maila handiko ikuskizuna da, eta eskainiko duguna kalitatezkoa izan behar da. Hortaz, neuk aukeratzeko ditut dantzariak. Baina orain ez dagoena, beste batean egongo da, eta ez da ezer pasatzen.

Eskolak emateaz gain, jaso ere egiten dituzu ezta?

Bai, jakina. Dantzari batek etengabe formatu behar du. Oraindik ezjakina naiz, eta gauza asko daukat ikasteko. Dantzari baten akatsik handiena, dena ikasi duela pentsatzea da. Hori uste duenak utzi dezala dantza. Beti dago ikasteko zeozer, eta mezu hori zabaldu nahi nuke.

Noiz eta nola hasi zinen hip hop dantzatzeko?

Txikitatik egin izan dut dantza. Estresa, nekea eta min ematen zidan guztia ahazteko modua zen. Horrek zorientasuna ematen zidala konturatu nintzen, eta hortik dator Dance and Smile taldearen izena ere, hori baita nire lema: dantzatu eta zorientsu izan. Ikasketak utzi eta dantza eskolak ematen hasi nintzen, eta bizitzan egin dudana aukerarik onena izan da.

Euskal Herrian bizi daiteke dantzatik?

Oso zaila da. Lanerako deitzen gaituzte, baina askotan ez digute kontraturik ere egiten! Eta lesioak ere oso arriskutsuak dira. Iaz lesio bat izan nuen, eta denbora luzez egon nintzen minez klaseak ematen, bestela ez bainuen kobratzen. Aukerarik onena zure proiektua sortu eta norberarentzat lan egitea da. Irabazteko arriskatu egin behar da, nahiz eta batzuetan galdu. Baina gustuko dudana egiten dihardut, eta horrek asko balio du.

Ainhoa Andonegi



ABENDUAK 16,

20:30 Urban Show vol. II

Dantza urbanoen jaialdia, Herriko Antzokian
D'Block (Bartzelona)
In Situ (Alacant)
Dance Day (Kantabria)
Dance & Smile (Gipuzkoa)

Sarrerak aurrez: 6 €

(Iriondo Kiroiak eta Amagoia gozotokian)

Txarteldegian: 8 €

22:30 Hip hop jaia, Toletxe tabernan

ABENDUAK 17

Urban Show workshop

Dantza urbanoen sei orduko ikastaroa Bilbon,
Txurdinagako kiroldegian.
Bideo forum-a eta afaria.

ALOKAIRUAN,
baina erosteko
aukerarekin!



% 4 ko BEZa urte bukaerara arte

Aurreko eta atzeko terraza duten
beheko etxebizitzetan aukerak



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR

zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

Izan zaitzez
berrialaguna

berria^{info}

Honako ekarpen hau egin nahi dut:
Adierazi X batez zure aukera

- Urtean 100 €
Aldi batean
Lau zatitan
- Urtean 200 €
Aldi batean
Lau zatitan
- Urtean beste kopuru bat: €
Aldi batean
Lau zatitan
100 eurotik beherako kopuruetan
ordainketa aldi batean egingo da
- Hilean 10 €

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betarik, jeki-eraztzen dizugu zure datu pertsonalak EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEAREN fitxategi automatizatu batera pasatzeko dirikoa. Zure esku dago kusatzea, zuzentzea, ezabatzea eta kontua egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain

berrialaguna izan nahi baduzu,
bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- **Postaz:** BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

Euskararen Eguna ospatuko dute Elgoibarren eta Mendaron

Bihar, abenduaren 3an ospatu ohi da Euskararen Nazioarteko Eguna, eta horren harira, hainbat ekintza antolatu dira Elgoibarren eta Mendaron, datozen egunetarako.

Danobat enpresak esaterako, urteak daramatza Euskararen Eguna bai bere langileekin baita herritarrekin ere ospatzen, eta aurten ere hala egingo dute. Gaur goizean adibidez, enpresako langileen artean *Bota lore bat euskarari* lemapean bonboiak banatu dituzte, eta abenduaren 16an, urtero bezala, Ikastolako frontoian herri-kirolak egin eta herrian triki-poteoa egin ostean bertso-afaria izango dute Baltasar elkartean Egaña eta Zubeldia bertsolariekin.

Horrez gain baina, Bergarako, Soraluzeko eta Elgoibarko eskoletako umeei, eta baita bazkideen seme-alabei ere, denbora-pasa batzuk banatu zaizkie, horiek beteta zozketa batean parte hartu dezaten. Guztira, hamar bizikleta banatuko dituzte partehartzaileen artean. Horrekin batera, partehartzaile guztiei kalibre formako bolaluma bat ere banatu zaie eta gurasoei euskararen garrantzia azpimarratuz eskutitz bat ere bidali zaie.

Eskolak ere euskararekin

Herri Eskolan euskararekin jolasean eman dute gaurko eguna haurrek. Txikienei, Josefina Sorginak egin die bisita, eta gaztetxoiei Markel Bergara futbol jokalaria elgoibartarrak.

Ikastolan ere, euskararen bueltan eta Argitxok lagunduta pasa dute eguna. Aurreko egunetan egindako Argitxoren figuren sari-banaketa, Argitxoren antzerkia edo eta dantza eta kanten osteko txokolatada izan dira egun osoko ospakizuneko ekintzetako batzuk.

Mendaron ere, euskararen alde

Mendaroko Ikastolakoak, gelatik irten eta pilotalekuan pasa dute arratsaldea euskararen egunaren ospakizunetan murgilduta eta horrez gain, Udalak beste bi ekintza antolatu ditu gaurko. Batetik, arratsaldeko 17:30ean, Teleipuina izeneko ikuskizuna egongo da San Agustinen. Ikusleen partehartzea ere eskatzen duen txotxongiloen eta antzezleen arteko eskaintza. Eta bestetik, Badiharduguk Mendaroko euskararen inguruan egindako lanaren aurkezpena egingo da leku berean, iluntzeko 19:00etan.

DATUEI BEGIRA

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak 2010ean egindako kale-neurketaren arabera, elgoibartarren % 41,58ak berba egiten du euskaraz herriko kaleetan. Gehien jolaslekuetan berba egiten da euskaraz, erosketa-giroan gutxien.

Horrez gain, ondorengo taulan ikusi daiteke, EUSTATen datuen arabera, Elgoibarren 20 urtean euskararen ezagutza nola garatu den.

	1986 Elgoibar %	1996 Elgoibar %	2006 Elgoibar %
Euskaldunak	53	59	59,83
la euskaldunak	13	9	15,54
Erdaldunak	33,7	31,7	24,62

DEÑE ZABALO

Danobateko euskara teknikaria




Norberaren hizkuntza alde batera utzi eta gaztelaniaz hitz egitea oso ohikoa da euskal hiztunon artean. Askok hasieratik aldatzen dute hizkuntza, egun on esan eta "buenos días" erantzuten dieten une berean; beste batzuek, aldiz, egoera jakin batzuetan bakarrik aldatzen dute. Baina ia-ia guztiok egiten dugu aldaketa hori une batean edo bestean, egunero-egunero.

Txiki-txikitatik, beste euskal hiztunekin euskaraz egiten ikasi dugu, baina inork ez digu erakutsi gauza bera egiten solaskidea beste hizkuntza batean mintzatzeko zaigunean, edo bestea zein hizkuntzatan mintzatzeko zaigun ez dakigunean.

Ez dugu ahaztu behar hiztun indibidualok gurea komunikazio egoeretan parte hartu, eta momentu bakoitzean zein hizkuntza erabili hautatzen dugunok. Horrenbestez, euskararen gizarte-presentzia handitzeko ahalegin guztiak euskal hiztunok geure hizkuntzan mintza gaitzen lortzeko egin beharko ditugu, baita solaskidea euskalduna ote den ala ez, ez dakigunean ere.

Nik neuk behintzat Jon Sarasuak dionarekin bat eginez "Nik ez dakit Euskal Herri euskalduna lortuko dugun, baina neure burutik hasita espazioak euskaraz betetzen saiatzen naiz. Edozein kasutan ere, hori delako egin dezakekana, egin nahi dudana eta niretzat zentzua duena". Espazio pertsonaletik hasi gaitzke beraz, norberaren esku dagoen guztietan eginez, baita gaztele-raz zuzentzen zaizkigunean ere, besteak egiten ez digunean ez baitu esan nahi ulertzen ez duenik.



*Detailez eta ohiturez bete-
riko errituala da ezkontza,
eta gaur egun ere, zehatz
mehatz jarraitzen da. As-
kotan ez dakizkigu ohitura
hauen esanahia eta
hauen jatorria. Zure ez-
kontza prestatzen ari ba-
zara, bitxikeri batzuk kon-
tatuko dizkizugu ezkon-
tzan ematen diren ohitura
batzuri buruz.*

ezkontza gehigarria

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35

HAIR'S
ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behe
Tel.: 943 531 279

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:
- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta
orraztu 16 €

Ezkontzaren ospakizunean mantentzen diren errituen zergatia

Ezkontzetako ohitura gehienak antzinatik datoz. Zibilizazioa aurrera joan ahala findu diren erritualak baitira. Hona hemen gaur egun ezkontzerako orduan jarraitzen ditugun ohitura batzuk eta hauen esanahia:

Arrak

Zilar edo urrezko hamahiru txanpon dira eta senargaiak emaztegaiari ematen dizkio ospakizun erlijiosoan. Antzinean senargaiak arrak oparitzen zizkion emaztegaiari, bere birjintasuna eskertuz. Gaur egun arrek beste esanahi bat dute, ezkontz berriek banatuko dituzten propietate eta ondasunen ikurra dira-eta.

Diadema

Antzinatik datorren ohitura da. Emaz-



tegaiak diadema jartzen duen momentuan, egun baterako erregina bihurtzen da.

Eztei-martxa

Zeremonia erlijiosoari hasiera eta bukaera ematen dien musika da. Ingalaterrako Victoria printzesaren eta Prusiako Federico Guillemoren arteko ezkontzarekin hasi zen ohitura hau.

Ezkon berriei arrosa botatzea

Erdi Arotik mantendu den Europako ohitura da. Gonbidatuek horrela erakusten zuten ezkon-berriei seme-alaba asko izatea opa zietela. Gaur egun larrosen petaloak ere botatzen dira.



AGURTZANE
c.b.

Fotodepilazioa
TRUCCO makilajea
%50eko deskontua

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

ileapaindegia



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Urriko irabazlea:
SARA IRIONDO

Azaroko saria:
**SPA TRATAMENDUA,
BEGI INGURU ETA BEGI
AZPIKO POLTSETAN
DRANATZAILE
LINFATIKOAK**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



Maria Urizar


Ileapaindegia - Solariuma

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489
Elgoibar

- ★ Jubilatuta eta ikasleentzat %10eko deskontua edozein egunetan
- ★ Astearteetan %10eko deskontua ile koloreztatzean
- ★ Ostegunetan %10eko deskontua ile mozketan

**Solariuma!! Sesioko 5€
10eko bonoa 45€
Anima zaitzte**

%10eko deskontuak!!



Emaztegiaren beloa

Antzina, emaztegia espritu txarretatik aldentzeko erabiltzen zen. Geroago beloak beste paper bat hartu zuten; emaztegiaren purutasuna

erakustearena. Beste kultura batzuetan ordea, beloa, emaztegia guztiz estaltzeko erabiltzen zuten, senargaiak ez baitzuen andregaiaren ezkondu arte ezagutzen. Soilik ezkondu ondoren igo zezakeen beloa.

Liga

Frantzian hasi zen ohitura bat da. Gaur egun emaztegiak liga kendu eta gonbidatuei botatzen die. Lehen ordea, gonbidatuak emaztegiaren atzetik segika joaten ziren berari liga kentzea lortu arte.

Aldarean emaztegia senargaiaren ezkerrean egon behar da

Antzina, senargaiak emazte izan nahi zuten neskek bahitzea oso ohikoa zen. Beraz, ezkontzerako orduan

emaztegia ezkerrean jartzen zuten, sarri emaztegiaren familia bera berreskuratu nahian etortzen zelako. Kopapen horrek ezpata zorrotik ateratzea ahalbidetzen zion senargaiari inongo arazorik gabe. Orduan sortu zen aita-pontekoaren figura. Normalean senargaiaren lagun mina izaten zen eta emaztegiaren bahiketan parte hartzen zuen.




- Lan komertzialak
- Irudi korporatiboa
- Katalogoak, liburuak
- Kartelak, zorlon-agurrak
- Jaunartze orotarriak
- Egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala
- BANNERRAK

Ezkontza gonbidapenak

San Bartolome, 15 - behea • 20870 ELGOIBAR • Gipuzkoa
Tel./Faxa: 943 53 17 45 • jasone@jasonesg.com • www.jasonesg.com



AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkl.a, behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310

TRATAMENDU BERRIAK!
Konpromisorik gabeko informazioa

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizuzkoak) - Mikropigmentazioa



Antzineak
ELGOIBAR
San Bartolome, 15-25 - Tel. 943 74 03 45



NAVA
INPRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - ☒ 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
E-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Etorri eta aukeratu.



LASA JATETXEA



*250 LAGUNENDAKO
JANGELA*

.....
*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
ospatzeko toki bikain batean*



Tel. 943 202 727
Faxa. 943 208 991
Arrate auzoa, z/g
-EIBAR-

HOTELA
JATETXEA

Krabelin

E-maila: conecta@hotelkrabelin.com

www.hotelkrabelin.com



Krabelin Hotela Arrateko santutegiaren ondoan dago, erreportaia egiteko txoko goragarriaz inguratuta. Sultte bi gau, jantzizko barne, oparitzen dizkio egunberriari: zereonia egunean eta hurrengoan logela izan dezaten euren beharretarako. Aukera izango dute ero familiarakoa hartzeko egongela hotean eta ez dira zortan etxera bueltatu beharke argazkiak egin ondoren, gonbidatuek behin bakarrik lekuaz aldatuz. Estahaitako sukulle bikaina baino berone hobirik ez dago.

Zure bizitzako pelikula



Erretratu zaharra



1911

Aste honetako erretratu zaharra, benetan zaharra da. Orain dela ehun urteko erretratu hau Eulogio Astigarragak ekarri du BARRENERA. Garate baserriko familia ageri da argazkian, eta seguruenik etxeko atarian aterata egongo da erretratua. Garai hartan ohikoa izaten zen argazkilaria deitu eta famili-erretratua ateratzea. Etxeko guztiak dotoredore jantzi ziren, argazkian ikusten den bezala. Gogora ditzagun zein diren familia horretako kideak:

Gurasoak, Agustin Mugertza eta Angela Leiaristi. Seme-alabak, Inaxia eta Jose Mari Mugertza.

Gabonetako bertso Jalaldirako

SARRERAK SALGAI

Abenduaren 12tik 23ra, Elgoibarko Izarraren egoitzan
Ubitarte 4, behea - 943 741 626 - elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com
Sarreraren prezioa: 10 euro (7 euro, Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Andoni Egaña
Uxue Alberdi
Unai Iturriaga
Jon Maia
Benat Gaztelumendi

Abenduak 29, osteguna 22:30 Herriko Antzokian

Abenduaren 23tik aurrera, sarrerarik geratzen bada, egunean bertan salduko dira Herriko Antzokian.

TXANKAKUA



ELGOIBARKO MERKATARI
ETA ZERBITZU ELKARTEAK
1.800€
OPARITUKO DITU
EROSKETA-TXEKETAN

100€

500€

100€

500€

100€

100€

100€

100€

100€

100€



EUSKO TRADICIA
INDUSTRIAL, ARTEAREN
MUNDUAREN GAITU ETXERAKO



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,
INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariek trontzan egingo dute apustua Kontzezio Azokan

Herri kirolak izango dira protagonista nagusiak aurtengo azokan

Abenduaren 10ean izango da aurtengo Kontzezio Azoka, eta herri kirolak izango dira nagusi egunean zehar. Hala ere, bitxikeria bat izango du aurtengo azokak, izan ere, bertsoak albo batera utzita, trontza apustua egingo baitute Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariek. Antza denez, Santana jaietan bertsotan jardun ondoren irten zen gaia, eta hantxe egin zuten apustua. Hitzeta bete egin behar, eta Kontzezio Azokan izango da trabesa. Bertsolariek, baina ez dute bakarrik jardungo: Sonia Garcia alkatea izango da Lizasoren bikotea, eta Toki Alai jate-txeko Nerea Arebalo, berriz, Egañarena. Galtzaileek bazkaria ordaindu beharko diete irabazleei.

Herri kirolak

12:30ean hasiko dira herri kirolak, eta ekitaldi horretan Esteban Kortaberri eta Agustin Agarretxiki omenduko ditu Udalak. Ondoren Donato Larretxea, Angel Arrospide, Ugaitz Mugertza eta Fausto Mugertza aizkolariaren erakustaldia egongo da. Jarraian, trontzalarien txanda izango da, eta gero, Jon Larrañaga, Igor Rey eta



Gotzon Zulaika mendarorrek lokots biltzen jardungo dute. Azkenik, Jose Ramon Iruretagoiena Izeta II eta Hodei Iruretagoiena Izeta IV harrijasotze erakustaldia eskainiko dute.

Hamazazpi postu

9:30ean hasiko da azoka, eta Mendaroko baserritarrez gain inguruko herrieta-koak ere etorriko dira euren produktuak erakutsi eta saltzera. Guztira hamazazpi postu egongo dira. Sagardo dastaketa eta lehiaketa egingo dituzte 11:00etan, ume-

entzako poniak egongo dira eta trikitxa dantza taldekoek kalejira egingo dute.

Barixakuan bertso saioa

Kontzezio Azokaren harira, bertso saioa antolatu dute hilaren 9rako. Alaia Martin, Amets Arzallus, Arkaitz Estibalees eta Miren Amuriza arituko dira bertsotan, San Agustin kulturgunean, eta Aitzol Urain mendarorrek egingo ditu gai jartzaile lanak. Saioa 21:30ean hasiko da, eta sarre-
rak egunean bertan erosi ahal izango dira, bost eurotan.

Egitaraua

9 BARIXAKUA

22:00 Bertso jaialdia

San Agustin kulturgunean. Bertsolariak: Alaia Martin, Amets Arzallus, Arkaitz Estibales eta Miren Amuriza. Gai jartzailea, Aitzol Urain.

10 ZAPATUA

9:30 Hasiera

11:00 Sagardo lehiaketa

11:30 Poniak, haurrentzat

12:00 Trikitixa dantza taldearen kalejira

12:30 Herri Kirolak, frontoian. Bertan, Esteban Kortaberri eta Agustin Agarretxiki omenduko dituzte. **Ondoren, AIZKOLARIAK:**

Donato Larretxea, Angel Arrospide, Ugaitz Mugerza eta Fausto Mugerza **TRONTZALARIAK:** Larreatarrak (Julian, Armando eta Julen), Pabi Astondoa eta Santon Intxaurbe, Pedro Alkorta (Doistu) eta Jose Mari Egaña (Illunbe), Arana anaiak (Arkaitz eta Oier), Ibai Arana eta Jon Loiola, Unai Salegi (Sarobe) eta Andoni Zubiaurre (Gorixo) **LOKOTS BILTZEA:** Jon Larrañaga (Euskadido Txapelduna), Igor Rey eta Gotzon Zulaika. **HARRIJASOTZALEAK:** Jose Ramon Iruretagoiena (Izeta II) eta Hodei Iruretagoiena (Izeta IV) **APOSTUA TRONTZAN:** Andoni Egaña eta Nerea Arebalo, Sebastian Lizaso eta Sonia Garcia.

Ondoren, sari banaketak: Baserritar jantzi dotoreenari, baso txukunenari, erosketa zozketa eta sagardo onenari saria

18:00 Erromeria, Xero Xiette taldearekin

2.162.100 euroko aurrekontua izango du Udalak 2012an, aurten baino %1 gehiago

Aurrekontuaren %7 inbertsioetarako izango da

Udalak 2.162.100 euroko aurrekontua izango du 2012an, iazkoa baino %1 handiagoa, hain zuzen ere. Aurrekontu "estua" dela adierazi du Sonia Garcia alkateak, baina Udal zerbitzu guztiak "normaltasunez" emango dituztela gaineratu du. Aurrekontua mailegu beharrik gabe

itxi dute, eta aurreko urteetako joerari jarraituz, udal zorrari eustea izango da 2012rako helburuetako bat.

%7 inbertsioetarako

Aurrekontuaren %7a erabiliko dute inbertsioak egiteko, eta hainbat zerbitzu

eta jarduera hobetzeko proiektuak onartu dituzte. Besteak beste, 20.000 euro erabiliko dituzte irisgarritasun plana eguneratzeko; 40.000 euro haurrentzako parkeak egiteko; eta 30.000 euro nekazal auzoetako bideak konpontzeko.

SARREREN AURREKONTUA

KAPITULUA	IZENDAPENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	403.200
2	Zeharkako zergak	40.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	251.100
4	Transferentzia arruntak	1.436.200
5	Ondare sarrerak	18.600
6	Inbertsio errealen inorenganaketa	6.000
7	Kapital transferentziak	7.000
	Sarrerak Guztira	2.162.100


GASTUEN AURREKONTUA

KAPITULUA	IZENDAPENA	EUROAK
1	Langileen ordainsariak	539.100
2	Ondasun arruntan eta zerbitzu eros.	1.159.950
3	Finantz gastuak	18.000
4	Transferentzia arruntak	87.950
6	Inbertsio erreala	132.000
9	Finantz pasiboak	225.100
	Gastuak Guztira	2.162.100

TELLABIDE

ITURGINTZA

Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro

Tel.: 943 755 062 / 607 755 062

Hilaren 12an jarriko dituzte salgai Gabonetako bertso jaialdiko sarrerak

Bertso saioa abenduaren 29an izango da

Elgoibarko Izarrak antolatutako bertso jaialdirako sarrerak hilaren 12tik 23ra erosi ahal izango dira, elkarteak Ubitarten duen egoitzan. Epe hori amaitu ondoren, sarrerarik geratzen bada, egunean bertan Herriko Antzokian salduko dira. Sarreraren prezioa hamar eurokoa da (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat, zazpi eurokoa).

Gabonetako bertso jaialdia abenduaren 29an izango da Herriko Antzokian, 22:30ean hasita. Aurtengoan Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Uxue Alberdi, Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi arituko dira bertsotan, eta gai jartzaile lanak Josu Goikoetxeak egingo ditu.



Jaiotzen lehiaketa abenduaren 17an eta 18an izango da

14 urtetik beherako gaztetxoentzako jaiotzen lehiaketa abenduaren 17an eta 18an izango da. Talde bakoitzak nahi duen materiala erabili ahal izango du jaiotza egiteko. Parte hartzeko interesa dutenek hilaren 17an eman beharko dute izena Parrokiako lokalean, eta domeka goizean, 10:30erako aurkeztu beharko dira lanak elizako arkupeetan. Sari banaketa 13:00etan egingo dute, San Bartolome Parrokian.

Aitor Asenjok hirugarren egin zuen Pasai Donibaneko auresku txapelketan

Euskadiko soinu zahar eta Gipuzkoako auresku txapelketak jokatu ziren joan zen zapatuan Pasai Donibanen, eta mutiletan, hirugarren postua eskuratu zuen Aitor Asenjo elgoibartarrak. Soinu zahar txapelketan, bestalde, hiru dantzarik hartu zuten parte. Arantza Ferreirok bosgarren egin zuen, Ane Espillak zazpigarren eta Iraitz Gonzalezek zortzigarren. Datoren hilabetez hasiko dira A eta B sailekoak ligaxkan parte hartzen, hau da, 7-11 urte eta 11-15 urte bitartekoak.



'Basura por ciruelas' txotxongilo ikuskizuna, domekan

Kultura Sailak *Basura por ciruelas* txotxongilo ikuskizuna antolatatu du domekarako. Bulgariako antzinako ipuin tradizional batean oinarritutako obra da. Protagonistak hainbat herri bisitatuko ditu asto gainean eta herritarrei aranak emango dizkie eurek trukean zaborra ematearren. Etxea oso garbi daukan emakume lirain batekin egingo du topo, eta honek ezingo dio gizonezkoari zaborrik eman. Gizonezkoak emakume hori aukeratuko du bere emaztea izateko. 16:30ean hasiko da ikuskizuna Herriko Antzokian.

Udal Musika Bandaren kontzertua hilaren 18an

Udal Musika Bandak Gabonetako kontzertu berezia eskainiko du abenduaren 18an. Sei abesti eskainiko dituzte: *Campanas de la victoria, vals con variaciones, Jon Gorri, Jai alai, Christmas festival eta Hator hator*. 12:30ean hasiko da kontzertua, Herriko Antzokian.

'Sex txokoa' egingo dute gaur Gaztelekuan

Elgoibarko Gazteluak eta Gazte Informazio Zerbitzuak elkarlanean *Sex txokoa* antolatu dute gaur arratsalderako, Hiesaren nazioarteko egunaren harira. Sexualitatea izango dute hizpide, eta saio parte-hartzailea izango da. Sexuari buruz hitz egiteaz gain, sexu arriskuei buruzko informazioa eta arrisku horiek ekiditeko baliabideak eskainiko zaizkie gazteei. Jardunaldia 18:00etan hasiko da, eta 19:30ak aldera amaituko da.

Bestalde, aste osoan zehar informazio mahai bat jarriko dute Gaztelekuan, sexualitateari buruzko hainbat liburu eta antisorgailurik, gazteek beharrezkoa duten informazioa eskuratu dezaten.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez 'Zazpikoloroa' ikuskizuna aurkeztuko dute abenduaren 30ean

Hilaren 12an jarriko dira sarrerak salgai, Kutzaren bidez

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez abenduaren 30ean etorriko dira Elgoibarrera, *Zazpikoloroa* aurkeztera. Aurten ere saio bikoitza eskainiko dute, 16:00etan eta 18:30ean. Udaleko Gazteria sailetik jakinarazitakoaren arabera, sarrerak 8 eurotan salduko dira abenduaren 12tik aurrera, Kutzaren bidez (telefonoz eta internetez). Aurten ez da leihatilan sarrerak hartzeko aukerarik egongo, hortaz, bai telefonoz, bai Internetez erositako sarrerak, norberak inprimatu beharko dituela ohartarazi dute. Telefonoz erostean 0,8 euroko komisioa ordaindu beharko da, eta internetez erostean 0,7 eurokoa. Sarrera guztiak agortu ezean, egunean bertan jarri-

ko dira salgai Kiroldegian, 15:00etatik aurrera. Kiroldegiko leihatilan erositako sarrerak ez dute komisiorik izango.

'Zazpikoloroa'

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Irriren Hirira gonbidatu dituzte, Zazpikoloroaren Festara. Usadioak dioenez, bihamun goizean jaiko da Zazpikoloro berria: urte osoan zehar mundua koloreztatuko duen hegazti miragarria. Gauerdian, ordea, Belekoi Andere zuri-beltz eta gaiztoa azalduko da, eta Zazpikoloroaren arrautza bahituko du. Zazpikoloroa askatu eta munduaren koloreak babestea izango da pailazoen zeregina.



'Maisharen koloreak' argazki erakusketa jarriko du ikusgai Jairo Berbel argazkilariak



Kuban, Congon eta Marokon ateratako 25 argazki jarriko ditu ikusgai Jairo Berbelek, *Maisharen koloreak* erakusketan. Aurpegiak, espresioak, paisaiak eta beste hainbat irudi bildu ditu argazkilari gazteak bere kamerarekin, eta hilaren 23ra arte egongo dira ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Euskararen gaineko motibazio saioa eskaini zuen Julian lantzi telebista aurkezleak Ikastolan

Elgoibarko Izarrak antolatuta, euskararen gaineko motibazio saioa eskaini zuen Julian lantzi telebista aurkezleak Ikastolan. Ameriketara jaio eta Euskal Herrira frankismo garaian iritsi zen lantzi, euskara debekatuta zegoen garaian, alegia, eta euskara berreskuratzeke egindako lanaz egin zuen berba, besteak beste. Programa honen hurrengo saioa *Buah Txabal* antzerkia izango da, abenduaren 19an.



Parrokiako jaiotza abenduaren 21ean

Abenduaren 21ean inauguratuko dute San Bartolome parrokiako jaiotza. Asteleheneetik barixakura arratsaldean egongo da zabalik, (17:30-20:30) eta asteburuetan eta jai egunetan goizez ere egongo da jaiotza bisitatzeke aukera, 10:30etik 13:30era.

'Euskararen jatorria: enigma europar bat' dokumentala

Hasier Etxeberria kazetari eta idazle elgoibartarrak *Euskararen jatorria: enigma europar bat* dokumentala zuzendu du, eta aste honetan bertan eman dute ETBn, Euskararen Egunaren harira. Euskaldunon iruditeria edo imaginarioan txertatutako galdera desberdin askori erantzun nahi izan die Etxeberriak. Dokumentalean Altoloko San Juan jaietan grabatutako irudiak ere jaso ditu elgoibartarrak. Interesatuek www.eitb.com webgunean ikus dezakete dokumentala.

Iñigo Lazkanok eta Nerea Amilibiak errekor berriak ezarri zituzten Alkortako igoeran

J oan zen zapatuan jokatu zen Mendaron Alkortako Igoera. 22 lagunek hartu zuten parte proban, eta Iñigo Lazkano izan zen guztietan azkarrena, azken bi urteetan bezalaxe. Lazkanok 20 minutu eta 24 segundo erabili zituen Alkortako gaina hartzeko, eta Joseba Plazak 2008an jarritako marka (20:43) ondu zuen, gainera, mendarorarrak. Iñigo Lariz elgoibartarra ailegatu zen helmugara bigarren lekuan (21:02), irabazlearengandik 38 segundora. Hirugarrena Iñigo Ortuoste izan zen, 22:19ko denborarekin. Emakumezkoetan, Nerea Amilibia izan zen partaide bakarra, eta iaz ezarritako marka hobetu zuen, errekor berria 25:40 segundotan ezarriz.



Iñigo Lazkano, ahalegin betean.



Larizek egin zuen bigarren.



Iñigo Ortuoste izan zen helmugan hirugarren.



Mikel Gabilondo.



Gotzon Zulaika.



Lazkanorentzat garaipena eta errekorra.



Saridunen podiuma.



22 lagunek hartu zuten parte.

Abenduaren 14an hasiko da Nazioarteko Xake Txapelketa

Azerbayango Azer Mirzoev izan zen iaz irabazlea

A benduaren 14an hasiko da Nazioarteko xake txapelketa, eta azken urteotan bezalaxe, munduko xake jokalaririk onenak etorriko dira Elgoibarrrera. Hilaren 14an bertan egingo dute aurkezpena udaletxeko pleno aretoan eguerdiko 12:30ean, eta abenduaren 20ra bitartean jokatuko dituzte partidak. Sari banaketa hilaren 20an egingo dute. Iaz bete zituen 20 urte txapelketa honek, eta Azerbayango Azer Mirzoev xakelaria izan zen irabazlea. Elgoibarren lortzen zuen bigarren garaipena izan zen, izan ere, 2006an irabazi baitzuen estreinako.

Eskola kirola

Etzeko txikien artean xakea sustatzeko asmoz, eskolarteko xake txapelketa antolatu du aurten ere Elgoibarko Xake Taldeak. Abenduaren 17an jokatu



dute txapelketa, Juan Mugertza kaleko lokalean, 11:30etik aurrera. Azken bi urteetan Markel Kerexetak irabazi du eskolarteko xake txapelketa.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Arenas 0 (3. maila)
Elgoibar 1 – Roteta 1 (Ohorezko erreg.)
Aurrera 0 – Elgoibar 2 (Ohorezko jub.)
Antiguoko 8 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 8 – Bergara 2 (Inf. txiki)
Arizmendi 4 – Elgoibar 1 (Sen. nesk.)
Eibar 7 – Elgoibar 0 (Aleb.)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Intza 22 – Lagunak 20 (1. mailako nag.)
Lagunak 22 – Aurrera Saiaz 17 (2. mailako nag.)
Eibar 22 – Lagunak 19 (2. mailako jub.)
Pala
Zarautz 25 – Lagunak 13 (2. mailako nag.)
Atxurbide 23 – Lagunak 25 (3. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Laskorain 2 – Concepto Egile Elg. 2 (2B maila)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 24 – Romo 24 (Sen. mut.)
Zarautz 28 – Tecnifuelle 34 (Sen. nesk.)
Beristain Elg. 31 – Leizaran 24 (Jub. mut.)
Pulpo 22 – Lauko Elg. 22 (Jub. nesk.)
Pulpo 22 – IMH Elg. 27 (Kad. nesk.)
Aiala 23 – Astigarraga Elg. 24 (Kad. nesk.)
Amenabar 20 – Txarriduna Elg. 17 (Inf. mut.)
Ikus Elg. 28 – Eibar 2 (Inf. nesk.)
Aterpe Elg. 18 – Pulpo 10 (Inf. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 3
19:30 Concepto Egile Elg. – Rigar Litocian (2.B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 3
11:30 Elgoibar – Real Sociedad (Ohorezko inf.)
16:30 Elgoibar – Ordizia (Ohorezko jub.)
Domeka, 4
12:15 Elgoibar – Aloña Mendi (Kad. B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 3
9:45 Bankoa Elg. – Aloña A (Inf. mut.)
11:00 Astigarraga Elg. – Zarautz (Kad. nesk.)
12:30 Grupo Eibar Elg. – Eibar B (Kad. mut.)
16:00 IMH Elg. – Zuazo (Kad. nesk.)
17:30 Lauko Elg. – Zuazo (Jub. nesk.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 2
21:30 Lagunak – Intxurre (1. mailako jub.)
22:00 Lagunak – Atxurbide (3. mailako nag. Pala)

Zikloturistentzako spinning saioa antolatu dute

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak zikloturistentzako spinning saio berezia antolatu du abenduaren 17rako. Saioa 10:30ean hasiko da eta ordu t'erdiko iraupena izango du. Edonork parte hartu dezake, eta saioa doan izango da. Interesatuak Mintxetako harreran eman dezakete izena, abenduaren 5a baino lehen.

Mendi irteera eta ardandegian bazkaria antolatu ditu Morkaikok abenduaren 17rako

Morkaiko mendizale elkarteak Urmaletako Biotopo Babestua bisitatzeko irteera antolatu du abenduaren 17rako. Hiru orduko ibilbide erraza dela aurreratu dute antolatzaileek, eta ondoren, ardandegian egingo dute bazkaria. Bazkideek 40 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 45 euro. Interesatuak www.morkaiko.net webgunean aurkitu dezakete informazio gehiago.

Sanloko sei jokalarik deitu ditu Euskal Selektzioak

Euskadiko eskubalo selektzioak kontzentrazioa egingo du datorren jai zubian, eta bertan, Sanloko sei jokalarik hartuko dute parte. Infantilek eta Kadeteek Gasteizen egingo dute kontzentrazioa abenduaren 5etik 8ra bitartean, eta jubenilek Madrilan jokatu dute. Kadeteetan, Leire Arizmendi eta Nora Kortabarria deitu dituzte; infantiletan, Nerea Soloza-bal, Ane Gallardo eta Alaitz Egaña; eta, jubeniletan Ainhitze Etxeberria.

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626 914 904**
- Ingleseko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. Paperak ditut. ☎ **689 311 385 / 626 263 251**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea lan bila. ☎ **686 578 228**

- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna. ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**

ESKAINZA

- Zerbitzaria behar da jai egunetarako. Orduka. ☎ **943 530 465**
- Sukalderako langilea behar da, jardunaldi erdirako. ☎ **943 530 465**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Bi logela alokatzen dira gizonetarako. Sukaldea eta erropa garbiketa barne. ☎ **679 843 332**


AUTOAK


- Autoa salgai. Opel Astra SS-AZ. Zuria, gasolinazkoa. 1.100 euro. Negoziagarria. ☎ **610 458 552**

BESTELAKOAK

- Etxeko katu bat dabil azken bi asteetan IMHko apar-kalekuan. ☎ **680 489 396**
- Urasandiko La Union elkarteko bazkide plaza salgai. ☎ **659 773 681**
- Canon EP-22 toner beltzak oparitzen ditut, berriak, erabili gabeak. Inpresora hauentzat balio dute: LBP-250/350/800/810/1110/1110SE/1120. ☎ **687 421 172**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta) Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro. Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

 Abenduaren 6tik 8ra ludoteka **ITXITA** egongo da. Ondo pasa jai-zubia!

 **Urtarrilaren 2rako HOCKEY TXAPELKETA** antolatu dugu, eta urtarrilaren 8an lasergunera irteera. Izenematea, abenduaren 20ra arte

 **LODOSO LEIHOAK**
Zure nearrira egindako lana
Aluminio-egurrean espezialitatea

- PVCa
- ALUMINIOA
- TERMIKOA
- ZURA
- ALUMINIOA
- POLIURETANOA

Leihotetan PLAN RENOVE
€22 Eusko Jaurlaritzaren laguntza

Sigmako industrialdea, Xixilion, 2. pabilioia, 3. zenbakia
Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es
fjiodoso@euskalnet.net

OKINDEGIA

4 domeka	IBARRENEA	11 domeka	IBARRENEA
6 martitzena	EIZAGIRRE	18 domeka	EIZAGIRRE
8 eguena	FOTERO		

FARMAZIAK (24 orduz)

2	Fernandez	17	Etxeberria (Santa Ana)
3	Yudego	18	Etxeberria (Santa Ana)
4	Yudego	19	Fernandez
5	Zabaleta	20	Yudego
6	Garitaonandia-Bidasolo	21	Zabaleta
7	Ibañez	22	Etxeberria (Errosario)
8	Etxeberria (Santa Ana)		
9	Etxeberria (Santa Ana)		
10	Fernandez Goizez: Garitao.-Bidasolo		
11	Fernandez		
12	Yudego		
13	Zabaleta		
14	Etxeberria (Errosario)		
15	Ibañez		
16	Garitaonandia-Bidasolo		

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384



• Zorionak, **Ibai**, lau urte egin dituzulako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Adrian**, bihar 10 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta osaba-izeben partez.



• Zorionak, **Iker**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi-handi bat, familiakoan partez.



• Zorionak, **Iker**, zure bosgarren urtebetetzean. Muxu asko, familiakoan eta bereziki, Markel, Joane eta Ekainen partez.



• Zorionak, **amama Pural**! Oso ondo pasa genuen zure urtebetetze egunean. Muxu asko Uraitz, Garazi eta Naroaren partez.



• Zorionak, **printzesal** Azkenean 5 urte bete dituzu! Muxu asko familiakoan, eta bereziki, Rocio eta Albaren partez.



• Zorionak, **Ibai**, asteazkenean 5 urte bete zenituelako. Etxekoan, eta bereziki, Leireren partez.



• Zorionak, **Jon Iriondo**, gaur 12 urte egin dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Rokeren partez.



• Urteko bat gaur, **Aneki** Zorionak eta patxo handi bat, familiakoan eta bereziki, Maddiren partez.



• Zorionak, **Nerea**, abenduaren 10ean 10 urte egingo dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, lehengusu Daneilen partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Nagore**, datzo 6 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat, bereziki, Unai eta Juneren partez.



• Zorionak, **Junkal**, datorren astean 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Nahial** 11 urte, hamaika bizipoz eta beste horrenbeste amets. Segi haunditzen, guapisima! Aititxa-amama, Maite eta tio.



• Zorionak, martxosa! Gemmaren partez.



• Zorionak, **Haritz**, bihar 5 urte egingo dituzulako. Familiakoan partez.



• Zorionak etxeko señoitiari abenduaren 9an 7 urte beteko dituelako. Muxu handi bat Saioa, Jon, Nahia eta etxekoan partez.

Gogoratu hurrengo alea **abenduaren 23an** izango dela, beraz zorion-agurrak ekartzeko azken eguna abenduaren 19a izango da 12:00ak baino lehen.

Erretratu bakarrek agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

errespetua

Debabarrena gara
www.gurebalioak.com

gurebalioak
DEBABARRENA

4 domeka

Txotxongiloak

16:30 'Basura por ciruelas'
Herriko Antzokian.

9 barixakua

Erakusketa

18:30 'Maisharen koloreak'
Hilaren 23ra arte, Kultur Etxean.

12 astelehena

Tailerra

19:00 'Bizitza estiloak.
Nerabeak heztea'
Kultur Etxean.

13 martitzena

Aisialdia

17:00 Ipuin-kontaketa
Maite Franco ipuin-
kontalariaren saioa, Udal
Liburutegian.

14 eguaztena

Txapelketa

12:30 Nazioarteko xake
txapelketa
Aurkezpena, udaletxean.

Tailerra

19:30 Dibortzioa: krisia ala
aukera
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

15 eguena

Aurkezpena

19:30 Udal aurrekontuak
Bilduk deituta, Kultur Etxeko
sotoan.

16 barixakua

Dantza

20:30 'Urban Show, vol II'
Hip-hop ikuskizuna, Herriko
Antzokian.

17 zapatua

Afaria

21:00 Maridaje afaria
Belaustegi jatetxean.

18 domeka

Lehiaketa

13:00 Jaiotza lehiaketa
Sari banaketa, parrokian.
Izenematea, aurreko egunean.

Txapelketa

11:00 Xake txapelketa
Eskola Kiroleko umeentzako,
Elgoibar xake taldearen
egoitzan, Juan Mugertza
kalean.

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren
Gabonetako kontzertua
Herriko Antzokian.

Jai

12:30 Santo Tomas jai
Zubibaik antolatuta, Altzolan.

19 astelehena

Antzerkia

11:00 'Buah txabal'
Herriko Antzokian.

Tailerra

17:00 Arte tailerra
Kultur Etxean.

Erakusketa

19:00 Mendi argazkien
erakusketa
Morkaikok antolatuta, Kultur
Etxeko sotoan, hilaren 23ra
arte.

20 martitzena

Jaialdia

14:15 eta 19:00 Gabonetako
jaialdia
Ikastolako umeen jaialdia,
Herriko Antzokian.

Tailerra

17:30 Literatura tailerra
Liburutegian.

Aurkezpena

19:00 Udal aurrekontuak
Bilduk deituta, Altzolan.

22 eguena

Kirola

19:30 Sari banaketa
Kirol Federatuaren sariak
banatuko dituzte, Musika
Eskolan.

JUBILATUEN ASTEA, ZAHARREN BILTOKIAN

13 MARTITZENA

18:00 Txokolate jana

14 EGUAZTENA

18:00 Gabonetako
otarren zozketa

15 EGUENA

14:00 Bazkaria
80 urtetik gorakoentzat
eta aurreko urrezko ezteiak
bete dituzten bikoteentzat.

17 ZAPATUA

17:00 Sorpresa

18 DOMEKA

12:00 Meza nagusia
18:00 Dantzaldia, Gelatxo
orkestrarekin.

ZINEA

«Urte berri on, amona»

2, barixakua: 22:15
3, zapatua:
19:00/22:15
4, domeka: 19:00
5, astelehena: 21:30
6, martitzena: 19:00

«Las aventuras de Tintin»

8, eguena: 19:00
9, barixakua: 22:15
11, domeka: 16:30

«Mientras duermes»

11, domeka: 19:00
12, astelehena: 21:30

«No habrá paz para los malvados»

17, zapatua:
19:00/22:15
18, domeka: 19:00
19, astelehena: 21:30

«Kika superbruja: el viaje a Mandolan»

18, domeka: 16:30

«Criadas y señoras»

22, eguena: 21:30
23, barixakua: 22:15
26, astelehena: 21:30

Etxe Aundi jatetxea

700 urte ditu Oñatiko Etxe Aundi jatetxeak, eta Kultur Ondare izendatuta dauka Oñatiko Udalak. Orain dela hiru urte Q kalitatearen ziurtagiria lortu zuten, eta ordutik, hobekuntzak eta berrikuntzak egin dituzte etengabe. Margarita Romariz da jatetxeko zuzendaria, eta hamar lagunek osatzen dute lantaldea.

“Etengabeko hobekuntza eskatzen du Q kalitateak”



Noiz eta nola erabaki zenuen Q kalitatearen aldeko apustua egitea?

2008an Praktika Onak ziurtagiriarekin hasi nintzen, eta horixe izan zen guzti honen hasiera. Auditoriak pasa eta diploma eman zidaten, hotel eta jatetxe alorrean. Hura jaso nuenean hasi nintzen Q kalitatearen ziurtagiriarekin. 2009an eman ziguten estreinako Q kalitatearen ziurtagiria, Euskal Herri eta Espainia mailan.

Zer eskatzen du Q kalitatea ziurtagiriak?

Ahalegin handia eskatzen du, baina merezi du. Zuzendaritzak egin behar du lan, bereziki, baina lantalde guztiaren inplikazioa ezinbestekoa da. Dokumentazio lan handia egin behar da, eta dena idatziz jaso behar izaten dugu. Langile guztiek ikasi behar dute nola jokatu behar den bezeroekin, eta sukaldean sekulako lana egin behar izaten da, hango lan guztia dokumentatzeko. Azken batean, etengabeko hobekuntza eskatzen du Q kalitateak.

Zein abantaila ekarri dizkizue Q kalitatearen ziurtagiria edukitzeak?

Ondo eginiko lana aintzat hartzea suposatzen du ziurtagiri honek. Ez dut uste Q kalitatearen ziurtagiriak bezero gehiago ekarri dizkigunik, baina une hau ere ez da onena hori neurtzeko. Dena den, gure prezioak ez dira igo Q kalitatea daukagulako, beraz, prezio berean, bezeroek nahiago dute Q kalitatea duten establezimenduetara jotzea. Bezeroak asko daki, eta baldintza berean kalitate hobea eskaintzen diona aukeratzen du.

Zeintzuk izan dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Barne funtzionamenduan egin ditugu hobekuntzak, bereziki. Eraikinari dagokionean ez dugu berrikuntza handirik egin, eraikina berrituta dagoelako. Hala ere, detaile guztiak zaintzen ditugu.

Zer esango zenieke turismo arloko profesionali kalitate turistikoaren

Qaren ezarpenerako animatu daitezzen?

Denei gomendatzen diet, izan ere, kontu hau turismo profesionalentzat oso interesgarria da. Gogorra da, zaila eta lan handia, baina benetan merezi duela iruditzen zait.

Kalitate turistikoaren Q prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?

Bai, dudarik gabe. Lehiakorragoak gara, eta horrek zerbitzu hobea eskaintzeko balioko du. Azken batean, denok irabazten dugu, bai geuk, eta baita bezeroak ere.

Aurrerantzean, Q kalitatearen ziurtagiriari eusteko, zein lan aurreikusten dituzu?

2012an tokatzen zaigu ziurtagiria berritzea, eta ez dut uste berritzeko arazorik izango dugunik. Etengabe gaude honekin lanean, eta ezin da tentsio maila bajatu. Gustatuko litzaidake jatetxearen ziurtagiriarekin batera, hotelarena ere lortzea.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

- Jardunbide egokirako programak: helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-konkizientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.
- Kalitate Turistikoaren Q-a programa: bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.
- EFQM Bikaintasun ereduak: erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.



Jarri Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria zure establezimenduan!
946 077 586 / 944 047 470

www.turismoa.euskadi.net/ www.euskalit.net



100 YEARS Alicorta

Forging Our Future



*100 urtez
gure geroa lantzen*